



## Zortzi milioi litro sagardo prest

■ SAGARDOAREN garaia hasi zuten atzo Astigarragako eta inguruetako sagardogileek. Adituen arabera, aurten-go sagardoa gozoa izango da, laz baino alkohol gutxiagokoa «uda heze joan zelako». Sasoi honetan dastatutako sagardoak sei gradu eskas ditu, kalitate handikoa da, eta orekatua zaporez, kolorez eta usainez. Atzo azaldu zute-

nez, sagardoak bere punturik onena ez du txotxeko garailan izango, botilan baizik. Zortzi milioi litro sagardo ekoiztu dituzte eta gehiena botiletan merkaturatuko dute, txotxetik %5-6 besterik ez baita kontsumituko. Argazkian, txotx garaia ofizialki inauguratu zuena, Julian Retegi pilotaria. → 11